

azpeitianzer?

udal aldizkaria 171. zenbakia

LAGUNTZAK

Ekonomia suspertzeko helburua duten jardura berriei eta etxebizitzaren alokairuari bideratutako diru-laguntzak emango ditu Azpeitiko Udalak



Udala

Udal berriaren osaketa zehaztuta gelditu da



Auzoak

Urrestillarako bidegorria eta Lasaoko herri etxearen lanak, abian

ale honetan zer?

- 3 Azpeitia ezagutzen eta erabakiak
- 4 Udal berria
- 6 Elkarrekin eraikitzen
- 8 Laguntzak
- 12 Auzoak
- 14 Hezkuntza
- 15 Parekidetasuna
- 16 Motxak

Argitaratzailea: Azpeitiko Udal
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Euskara Patronatua	943 81 45 18
Alkatetza	943 15 71 85	Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Idazkaritza	943 15 71 98	Zapo Txoko	943 15 71 61	Lapatx Zaborteia	943 15 18 75
Kontuhartzailtza	943 15 71 89	Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83
Hirigintza	943 15 71 91	Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Liburutegia	943 15 71 95	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70
Kultura	943 15 70 68	Udaltzainak	943 15 13 13	Kontsumitzaileen Informaziorako bulegoa	943 15 71 93
Komunikazioa	943 15 79 82	Suhiltzaileak	112	Baigera I	943 81 44 64
Kirolak	943 15 00 95	Igerilekua	943 81 41 21	Baigera II	943 81 23 89
Parekidetasuna	943 15 79 28	Kiroldegia	943 81 30 69	Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55	Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Alkoholiko anonimoak	629 14 18 74

Azpeititik kanpo bizi
arren, zure etxean jaso
dezakezu Azpeitian Zer?
aldizkari hau posta bidez.
Egin eskaria 943 15 71 85
(Alkatetza) telefonon.

botika txandak

ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Uztailaren 2, 8, 14, 15, 17, 20 eta 27.

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Uztailaren 6, 11, 12 eta 24.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Uztailaren 1, 7, 10, 16, 22, 25, 26, 28 eta 30.


EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Uztailaren 3, 9, 13, 18, 19, 21, 23, 29 eta 31.

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Uztailaren 4 eta 5.

Azpeitia ezagutzen



Inaxi eta Patxi pertsonaien bidez, Azpeitiko historia ezagutzeko balioko diguten herriko datu esanguratsuak ikasteko aukera izango dugu aurrerantzean tarte honetan. Ezagutu Azpeitia, bere historia eta ondarea!



Ekaingo kobazuloa azpeitiar talde batek aurkitu zuen eta inguruan ditugun garrantzitsuenetakoa da. Orain 17.000-11.000 urte ingurukoa da, eta bertako hormetan hainbat animalia margotuta ikus daitezke.

erabakiak

Maiatzaren 5eko bilkuran honako erabakiak hartu ziren:

- 1.- Udalbatzak 2015eko martxoaren 3an eta martxoaren 31an egindako bilkuren aktak onartu ziren.
- 2.- GFaren eta Azpeitiko Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena, bizikleta eta oinezkonetzako Azpeitia-Urrestilla zatia (5.ibilbidea: Urola bailara 05 015F ZATIA) egin eta finantzatzeko akordioa aho batez onartu zen.
- 3.- GFaren, Azpeitiko udalaren eta Osakidetzaren arteko lankidetzaren hitzarmena, "GILTZAGUNE" izeneko proiektua burutzeko, trafiko mugatuko kaleetan larrialdietako zerbitzuak izan dezaketen oztopoak kentzeko helburuarekin, aho batez onartu zen.
- 4.- Azpeitiko Udalaren eta Urola Erdiko Mankomunitatearen arteko hitzarmena iadanik egindako ekarpen guztiak jasotze, jabetza eta mantentze lanak zehazteko, eta proiektatuak dauden guztiak sustatzeko, kontratatzeko, burutzeko eta jasotzeko, EH Bildu eta Hamaikabat taldeen aldeko bozkek onartu zen. EAJ abstenitu egin zen.
- 5.- Sebastian deunaren ohorezko jaietan egiten den helduen danborrada arautuko duen udal agintarai berria EH Bilduren aldeko botoekin onartu zen. EAJ eta Hamaikabat taldek aurka bozkatu zuten.
- 6.- Etxez Etxeko Laguntzarako zerbitzuaren udal-arautegia aho batez onartu zen.
- 7.- "Giza eskubideen urraketak eta beste sufrimenduak 1963-2013" izena duen fitxategia sortu eta dagokion erregistroan inskribatzea aho batez onartu zen.
- 8.- Galdera eta erreguak.

Ekainaren 11ko Udalbatzan berriz, honako erabaki hauek hartu ziren:

- 1.- Udalbatzak 2011-2015eko legegaldian egin dituen bileren akten likidazioa: 2012ko maiatzaren 8an, 2012ko uztailaren 5ean, 2014ko urriaren 10ean, 2015eko apirilaren 27an eta 2015eko maiatzaren 5ean egindako bilkuren aktak onartu ziren.
- 2.- 2014ko ekitaldirako kontu orokorra EH Bildu eta EAJ taldeen aldeko botoekin onartu zen. Hamaikabatek kontra bozkatu zuen.
- 3.- Leire Etxaniz Manterola zinegotziak liberatu moduan baja eman duela jakinarazi zen.
- 4.- Alkatetzak 2014ko ekitaldian (maiatzetik) eta 2015eko ekitaldian rman dituen ebazpenen berri eman zen.



Azpeitiko Udalaren lehentasuna azpeitiarren bizi kalitatea hobetzea da

Lehentasuna berreskurapen ekonomikoaren oinarriak finkatzen jarraitzea izango da eta horretarako ekonomia batzordea sortu da

ekainak 13ko ezohiko bilkuran alkateak eta zinegotzi berriek kargu hartu ondoren, uztaila hasieran egindako udalbatzarrean zehaztu zen Udal berriaren eraketa eta funtzionamendu berria. Modu honetan, batzorde informatiboaren eraketa eta hauen osaketa politikoa; Udalaren ordezkaritza beste organo eta erakundeetan; hautatuen ordainsariak; alderdi bakoitzeko bozeramaileak edota alkateordeen izendapena bezelako gaiak, erabakita utzi ziren lehenbiziko bilkura honetan.

Aurrerantzean udalbatzak hileko lehen asteartetan egingo dira, 19:00etatik aurrera eta Gobernu Batzordea, 6 kidez osatuta egongo da; Eneko Etxeberria alkatea, Estitxu Elduaen, Agustin Lizarralde, Aitor Gorrotxategi eta Itziar Lasa. Gainera, zinegotzi hauek izango dira, hurrenez hurren, alkateordeak.

Udal sail desberdinak antolatzeko batzorde informatzaileak ere osatu dira. Berrikuntza nagusi bezala, aurreko legealdian baino bi batzorde gehiago proposatzen dira, bi batzorde berri sortu baitira. "Batetik, ekonomia batzorde propioa sortu da, Udal Gobernuaren lehentasuna hor kokatuta dagoelako. Bestetik,

kultura, euskara eta parte-hartze batzordea osatu da herriak duen dinamika arlo honetan oso indartsua delako", agertu du Eneko Etxeberria alkateak.

Honako hauek izango dira batzordeak eta bere batzordeburuak;

1. **ESTRATEGIA ETA HIRIGINTZA** Eneko Etxeberria
2. **OGASUNA ETA LANGILERIA** Estitxu Elduaen
3. **EKONOMIA BATZORDEA** Agustin Lizarralde
4. **KULTURA, EUSKERA ETA PARTE-HARTZEA** Iosu Labaka
5. **FESTAK, GAZTERIA ETA HEZKUNTZA** Mikel Ibarzabal
6. **GIZARTE BEHARRAK ETA PAREKIDETASUNA** Ainhoa Beristain
7. **KIROLAK** Estitxu Elduaen
8. **BARNE ANTOLAKETA, INGURUGIROA eta AUZOAK** Aitor Etxeberria

Batzorde guzti hauek, bost kidez osatuta egongo dira; EH Bilduko hiru zinegotziz eta EAJ-ko bi zinegotziz. Era berean, eta azken 4 urteetan egin bezala, batzorde irekiak izango dira. Hau da, horrela nahi duten eragile zein herritarrek joan ahal izango dute.

LIBERAZIOAK ETA ORDAINSARIAK

Azpeitiak, dituen biztanle kopuruaren arabera (15.000 inguru), legez jardun osorako bost liberatu dagozkie. 2011-2015 legealdia 3,35 lanaldi erabili dira liberatuetan eta legealdi berrian, 4 izatea proposatzen da. Ekonomian eragiteko helburuarekin hartu da erabakia, izan ere, nahiz eta eskumenik ez izan, Udalak arlo horretan fruituak izan ditzakela uste du lan eginez gero; "Azpeitia ekonomikoki, sozialki eta herri gisa indartzen jarraitzeko motorra Udalak izan behar duela sinesten dugu eta motor horrek hobeto funtzionatzeko inbertsioa egiteko beharra ikusi dugu. Azpeitia eta azpeitiarrei ahalik eta zerbitzu eta gestio onena ematearen ardura dugu, horretarako aukeratu gaituzte, eta lan hori ondo egiteko baliabideak berrantolatu eta indartzea beharrezkoa ikusi dugu lau urte hauetan. Antolaketa berriarekin ere herritarrek nabarmen antzeman dutelakoan gaude", azaldu du Etxeberriak.

- Iosu Labaka, %75ean liberatuta eta urteko soldata gordina 24.750 euro.
- Mikel Ibarzabal, %50ean liberatuta eta urteko soldata gordina 16.500 euro.
- Aitor Bereziartua, %50ean siberatuta eta urteko soldata gordina 29.500 euro.
- Ainhoa Beristain, %35ean liberatuta eta urteko soldata gordina 11.550 euro

Soldatak ezartzerakoan erabilitako irizpide nagusia, liberatu bakoitzak Udalean lan egiteagatik orain arte zuen lanbidean kobratzen zuen kopuru bera jasotzea izan da, eta beti ere, jasotako gomen-dioen barnean.



Gainera, antolaketa horizontalaren aldeko apustua egiten da, ardura eta erantzunkizuna betikalki eta pertsona gutxiaren esku utzita baino eraginkortasun eta emaitza hobea lortuko baita. "Ardurak pertsona gehiagoren artean banatuta bakoitzak bere alorra hobeto kudeatzen duela erakutsi digu azken 4 urte hauetako esperientziak, eta horretan sakontzea proposatzen dugu, inbertsio honekin Azpeitia eta azpeitiarrentzako zerbitzu publikoa hobetuko delako eta herritarrek hori behar dutelako".

Honela, hauek dira liberatuak eta soldatak:

- Eneko Etxeberria, %90ean liberatuta eta urteko soldata gordina 48.976,45 euro.
- Estitxu Elduaen, %100ean liberatuta eta urteko soldata gordina 33.000 euro.

UDALBATZA EDOTA BATZORDEETARA JOATEAGATIK ORDAIN-SARIAK

- a.-** Batzordeburuak: hilean 175 euro
- b.-** Batzorde berriemaileetako bileretara etortzeagatik:
 - Batzordeburuak 100 euro jasoko ditu bilera bakoitzeko.
 - Batzordekide bakoitzak 50 euro jasoko ditu bilera bakoitzeko.
- c.-** Udalbatzaren bilkuretara eta Gobernu Batzordearen bilkura bakoitzera joateagatik zinegotzi bakoitzak 90 euro jasoko ditu.

Ordainsari hauek liberatu gabeko zinegotziei bakarrik eragingo die, hau da, liberatutako zinegotziek, lanaldi osoz edo zatikako lanaldian izan, ez dituzte kalte-ordain hauek jasoko.

Azkenik, aurreko legealdian planteatu zen gisan, hartzen diren erabakiak egiazki funtzionatzen duten konprobatuko da, eta horrela ez balitz, beharrezko aldaketak egingo lirateke.

Errenta mailaren arabera banatuko dira aurten alokairua sustatzeko diru-laguntzak

Mugikortasun gutxikoei, 70 urtetik gorakoei eta bananduei ere aukera emango zaie



etxeak errentan hartzeko diru-laguntzak eska daitezke jada, urriaren 15era bitartean, Udaleko Harrera bulegoan. Udalak iaz jarri zituen laguntza hauek abian, gazteak baitira krisiaren eragina nabarmen pairatzen ari diren kolektiboetako bat. Honela, iazko datu onak ikusirik (134.000 euro baino gehiago banatu ziren eta Azpeitian alokairuan zeuden ia etxe guztiak alokatzea lortu zen), aurten berriro 150.000 euro horretara bideratzea erabaki da.

“Etxebizitza politika berri bat egitea da asmoa. Izan ere, 150.000 euro etxebizitza berri bat erosten gastatu ditzakegu, baina orduan, familia bati bakarrik lagunduko genioke. Aldiz, alokairua sustatuz, familia gehiagotara iristen gara eta dugun dirua hobeto banatzen dugu”, agertu du Eneko Etxeberria alkateak.

Aurten ordea, berrikuntza nabarmen batzuk sartu dira, ahalik eta pertsona gehiengoarena iristeko asmoz. Honela, kolektibo desberdinei zabaldu zaie aukera;

- 18 eta 35 urte bitarteko gazteak
- Mugikortasun urria duten pertsonak
- Banandutako pertsonak

- 70 urtetik gorako pertsonak

Bestalde, diru-laguntzen zenbatekoa errentaren arabera finkatuko da, hemen baremoak;

- 0 eta 15.000 euro; alokairuaren %50

- 15.000 eta 21.000 euro; %40

- 21.000 eta 30.000 euro; %30

- 30.000 eta 35.000 euro; %20

“Laguntzak jasotzeko eskaerak udaleko harrera bulegoan aurkeztu behar dira, urriaren 15a baino lehen”

Laguntza jasotzeko betebeharrei dago-kienez, bizikidetza unitateko pertsona batek behintzat Azpeitian errolatuta egon behar du gutxienez 10 urtetan eskaera aurkezteko unean. Bizikidetza unitateko diru-sarreraren muga, honakoa baino txikiagoa izango da:

- 28.000 euro gordin urtean (eskatzaille bakarra bada).
- 35.000 euro gordin urtean (bi eskatzaille edo gehiago badira).

Era berean, Alde Zaharra Biziberritzeko prozesuarekin bat eginez, Alde Zaharrean kokatutako etxebizitza bada, 50 euro gehituko zaizkio laguntzari, hala ere, gehienezko laguntza 300 eurokoa izango da hilean (Alde Zaharreko 50 euroak bamean sartuta). Iaz laguntza jaso zuten gazteek ere aurkez daitezke aurtengo laguntzara, baina, bigarren aldiz jasoko dutenez, laguntza %25ean murriztuko zaie.

Eskaera orriak edota informazio gehiago behar duenak, Azpeitia Berritzenek Sindikatu Zaharreko bigarren solairuan duen bulegora joan beharko du. Eskaerak aldiz, udaletxean aurkeztu beharko dira.



Urola Erdia bailaran beste 17 lanpostu sortzeko bidea ireki dute udalek

Azkoitia, Azpeitia, Zestoa, Errezil, Aizarnazabal eta Beizamako udalek aurten ere Enplegu planerako eskaera egin dute, Iraurgi Berritzenen bidez; 200.000 euro eskuratu dira, bost proiektu garatu eta 17 lanpostu berri sortzeko

enpleguaren alorrean udaletxeek duten eskumena oso murrizta izan arren (Eusko Jurlaritzak eta Espainiako Gobiernuek duten horren eskumena), Urola Erdiko udalak batu eta langabeziari aurre egiteko euren esku dagoen guztia egiteko konpromisoa hartu zuten orain lau urte, eta bide horretan beste pausu bat eman berri dute: Lanbidek martxoan zabaldu zuen eskualdeetan enplegu planak garatzeko diru-laguntzak eskatzeko epea, eta Azkoitia, Azpeitia, Zestoa, Errezil, Aizarnazabal eta Beizamak, elkarlanean eta Iraurgi Berritzenen bidez, 202.119,85 euroko eskaera egin dute.

“Lanbideren erantzun baikorra jaso ondoren, lanpostu hauen berri eman eta lan poltsa irekiko da udalen, Urkome edota Iraurgi Berritzenen bidez”

Enplegu plan horren bidez bost proiektu desberdin garatzeko langabetuak kontratatuko dira eta guztira, 17 izango dira bete behar izango diren lanpostuak. Honakoak dira landuko diren bost proiektuak (lehenbiziko laurak lehendik ere martxan daude, eta bosgarrena, aldiz, berria da):

- EkoBailaren proiektua: jasangarritasunaren arloan kontzientzia soziala sortu eta bailarako baliabideak baloreen jartzea izango du helburu.
- FabrikaTU proiektua: Urola Erdiko eskualdean Fabrikazio aurreratua eta ekonomia zirkularraren inguruan ekimenak bideratzea du helburu.
- FormaTeu-Inter proiektua: eskualdean nazioartekotzea bultzatzea du helburu.
- UrolEkin proiektua: eragile ezberdinen arteko elkarlana sustatzea eta ekintzailetasun ekosistema bat sortzea ditu helburu.
- Eta NagusiADI izeneko proiektu berria: Azpeitian proiektu pilotu bat martxan ipiniko da, hirugarren adinean egon eta menpekotasu duten pertsonen gaueko zerbitzu integral espezifiko eskainiz.

Lanbideri eskaera egin zitzaion eta ekaina bukaeran jaso zen erantzun baikorra. Orain, Lanbideren erantzun positiboa esku artean izanda, eta informazio zehatzagoa izandakoan, 17 lanpostuen berri eman eta lanpoltsak irekiko dira. Kontratazio hauek bailarako udalen bidez, Urkomeren eta Iraurgi Berritzenen bidez egingo dira.



Azpeitia eta Urrestilla arteko bidegorriaren lanak urte amaieran hasteko konpromisoa hartu du Aldundiak

Aurrekontua 1.107.953 eurokoa da eta Udalak %25a ordainduko du

azpeitia eta Urrestilla inoiz baino gertuago izango dira laster. Izan ere, bi guneak lotuko dituen bidegorriaren lanak urte honen amaieran hasiko dira. Aldundiak eta Udalak lortutako hitzarmenarekin, herritarrek urteetan zehar egindako eskaerari erantzuna ematea ziurtatzen da. "Hitzarmen hau garrantzi handikoa da guretzat, izan ere, Urrestillara doan bidegorria ez da edozein moduko bidegorria. Urrestilla nukleo urbano oso garrantzitsua da. Bidegorria ez da aisialderako bidegorria soilik, Urrestilla eta Azpeitiaren arteko behar beharrezko konexioa da, eta gainera industrigune oso garrantzitsuarekin konektatzen du. Badakigu beste hainbat herrietako bideak lehen-tasuna zutela, horregatik Foru Aldundiari eskerrak eman nahi dizkiogu", agertu du Eneko Etxeberria alkateak.

"Bidegorria ez da aisialdirako bide bat soilik, Urrestilla eta Azpeitia artean behar beharrezko konexioa da"

Bidegorria egiteko aurrekontua 1.107.953 eurokoa da, eta behin lanak hasita, eraikitze epea bederatz hilabetekoa da. Lanak 2015ean hasi eta 2016an amaituko direla aurreikusi da. Azpeitiko Udalak bidegorria egitearen kostuaren %25a bere gain hartuko du eta gainerako % 75 Aldundiaren kontura izango da.

Urrestillarako bidegorriaren ibilbidea zehaztu da dagoeneko eta arduradunek aurreratu dutenez, bidea 1.550 metro luze eta 3 metro zabal izango da, eta zatirik handienez GI-2135 errepidearen ertzean egingo da; errepidea behin gurutzatuko du, eta lbaieder erreka, berriz, bitan. Ibilbideari dagokionez, Arretxe baserriaren aurrean hasiko da, gaur egun espaloia amaitzen den gunean. Bideak aurrera jarraituko du errepidearen ondotik, Kimubat enpresaren aparkalekuan barrena, eta Malkorra etxebizitzara iristeko bidea gurutzatu eta gero, 230 metrotan bidegorria errepidearen ondotik joango da.

Tarte hori amaitu ondoren, trazatuak 19,50 metro luzeko egurrezko pasabidearen bitartez lbaieder erreka gurutzatuko du.

Ondoren, bizikleta eta oinezkoentzako bideak aurrera jarraituko du lbaieder ibaiaren eskuinaldetik. Bidegorria Larrañaga industrialde ingurura helduko da eta, trazatuak, gaur egun hartxintzarrez osaturiko aparkalekutik jarraituko du bere bidea. Jai-Alaien inguruan errepidea gurutzatuko du,

semaforo bitartez erregulatutako pasabidetik. Larrañaga industrialdeko aparkalekuaren eremutik jarraituko du, lbaieder erreka berrir gurutzatzen duen gunera iritsi arte. Erreka gainditzeko pasabide bat eraikiko da aurrefabrikatutako hormigoizko habeen bidez. 18,5 metroko pasabide hori GI-

2635 errepidearen igarobideari itsatsita ezarriko da. Puntu honetatik aurrera, bizikleta eta oinezkoentzako bidearen trazatuak GI-2635 errepidearen eskuinaldetik (Urrestillako noranzkoan) jarraituko du Urrestillako herri gune sarrerarekin bat egin arte. eta birzikaplen tasak hobetu.

Lasaoko bizilagunen biltoki izango den Herri Etxearen eraikitze lanak hasi dira



Lasaoko bizilagunek horrela eskatu ondoren Denon Artean aurrekontu parte-hartzaile prozesuaren baitan, Azpeitiko eta Zestoako Udalek Lasaoko Herri Etxea eraikitze lanak hasi dira. Prozesuak luze jo duen arren, behin lanak hasita daudenean, hilabeteko epean obrak amaituta egotea espero da.

Lanak fase desberdinetan egingo dira; honela, lehenbizi ur saneamendua be-

rritzen hasi dira ur zikinak araztegiara bideratzeko. Ondoren, berriz, auzoko ur saneamendu sarea berrituko da eta azkenik, eraikin prefabrikatua jarriko da.

Herri Etxea izango den eraikina auzoan dagoen parkean egongo da kokatuta, eta guztira, 100 metro karratu izango ditu. "Urte luzez eska-tzen egon dira leku bat biltzeko, eta prozesua luzea izan den arren, azkenean behar beharrezkoa zuten gunea izango dute.

Eraikin prefabrikatua izan arren, gaur egungo sistema aurreratu asko izango ditu, hala nola, energia aurreztuko du. Herri Etxearekin auzoa bizi mantentzeaz gain, herritarrek biltzeko gunea izango dute", agertu du Eneko Etxeberria Azpeitiko alkateak.

Lanak 103.000 euroko aurrekontua dute eta Azpeitiko Udalak erdia ordainduko du, beste erdia, aldiz, Zestoakoak ordainduko du.



Orientazioa eta formazio laborala egokitasunez bildu eta erakusteko weborriaren lehen urratsak

Azpeitiko Udala, herriko hainbat eragilekin elkarlanean, sarean web bizi bat suspertzeko lanean ari da

herriko egoera laboralaren egoera ikusirik, Azpeitiko Hezkuntza sailak lana eta formazioari buruz zerbait egin beharra ikusi zuen. Honela, orain urtebete inguru, herriko hainbat eragilerekin bildu (Bozi, Iraurgi Berritzen, Lanbide, Orientazio zerbitzua eta enplegu zentroa, Urola Ikastola...) eta ideia bat lantzen hasi zen.

Asmo edo ideia hori garbia zen; eskualdeko informazioa, orientazioa eta formazio laborala modu argi eta erraz batean emateko era bilatu nahi zela, eta zera planteatu zen; sarean web bizi bat suspertzea, eskualdeko eragile denek elkarpenekin.

Gaia aztertu ondoren, urte hasieran egindako galdeketa batean eragile ge-

hienek egokia ikusi zuten horrelako ekimen bat burutzea. Honela, ekimena "beharrezkoa", "erreferentziazkoa", "parte-hartzailea" edota "lehentasunezkoa" izan behar zela adierazi zuten eragileek.

"Eragileek webgunea egitea 'beharrezkoa', 'erreferentziazkoa', parte-hartzailea' eta 'lehentasunezkoa' ikusten dute"

Abiapuntu honekin lanean ari dira Azpeitiko Udala, Azpeitiko Ikastola Ikasberri Koop., Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntza (Bozi), Gazte informazioa Bulegoa, Iraurgi Berritzen -koordinazioaren ardura- eta Iraurgi ikastetxea, KZ Gunea, Lanbide, Orientazio zerbitzua eta enplegu zentroa, eta Urola Ikastola horrelako egitasmo bat aurrera eman nahian.

Modu honetan, Azpeitiko Udala eragile guztiekin bildu zen orain gutxi Udal areto nagusian eta bilera horretan web hori nola izan daitekeen zirriborroa azaldu zuen, partaideen artean osatu eta adosteko asmoarekin. Egitasmoa finkatzen doan neurrian Urola Erdiko gainontzeko udalei eta eragileei azalduko zaie.

Genero ikuspegia udal jarduerara osoan txertatzeko konpromisoa hartu du Udalak

Aitzindaria izango da Udala pauso hau emanez, Donostia eta Tolosarekin batera



urte asko pasa dira Azpeitiko Udalak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren bidean urrats sendoak ematea erabaki zuenetik. Helburu garbi horrekin hainbat proiektu landu izan dira azken urte hauetan, adibidez Berdintasun Plana. Azkenaldian ordea, berdintasun politikek garapen handia izan dute bai nazioarte mailan, baita Euskal Herri mailan ere, eta honek bere islada eta ondorioa izan du onartu diren legeetan.

Azpeitiko Udala ere egoera berrietara egokitzen joan da, eta ondorioz, mainstreaming estrategia garatzeko helburua Azpeitia 2025 Plan Estrategikoan txertatu zuen. "Oraingoaz beste urrats bat eman nahi izan dugu, eta aho batez onartu dugu estrategia martxan jartzeko konpromisoa. Udala berriro aitzindaria izango da, eta Donostia eta Tolosa bezalako herriekin batera emango dugu pauso hau. Foru Al-dundiaren laguntzarekin. Eredu izan nahi dugu beste herrientzat eta bai heritarrentzat ere. Estrategia hau martxan jarrita udal kudeaketa gardenagoa izango da, juxtuagoa, heritar guztien

beharretara egokituagoa, eta finean, eraginkorragoa", agertu du Leire Etxaniz Parekidetasun zinegotziak.

Estrategia honek genero ikuspegia udal jardueran txertatzea suposatzen du, alegia Udalak edozein ekintza, arau, proiektu... diseinatzerakoan, garatzerakoan eta ebaluatzerakoan emakume eta gizonen egoera, beharrak eta ezaugarriak kontuak hartzea suposatzen du.

"Lan egiteko era aldatzea suposatzen du estrategia honek, mugimendu feministak aipatzen dituen betaurreko moreak jatzeta"

"Lan egiteko era aldatzea suposatzen du, mugimendu feministak aipatzen dituen betaurreko moreak jatzeta, errealitatea beste era batera aztertzea. Epe luzeko prespektiba dauka, eta poliki-poliki joango gara neurriak hartzen. Honela, aurrean bi prozedura administratibo landuko ditugu, bata informazioa eta

komunikazioa, eta bestea, kontratazioa eta diru-laguntzen deialdia", azaldu du Parekidetasun teknikari den Edurne Aranbarrik.



Ekintzailetasuna gaztarotik suspertuz

‘Elkarrekin eraikitzen’ proiektuan eskualdeko 250 ikasle inguruk hartu dute parte

Elkarrekin Eraikitzen proiektuak iaz hasitako ibilbideari jarraitu dio aurtengo ere. Eskualdeko ikasleek ekintzailetasuna eta egoera sozioekonomikoa gertutik ezagutzeko aukera izan dute enpresetako kasu errealak aztertuz.

Aurtengo ekitaldian, iaz egin bezala, Azpeitiko eta Azkoitiko 5 ikastetxeek (Floreaga Salestar Ikastetxea, Iraurgi Ikastetxea, Ikasberri Azpeitiko Ikastola, Xabier Munibe Azkoitiko Ikastola eta Urola Ikastola) hartu dute parte. Proiektuaren koordinatzaile lanetan berriz, Iraurgi Berritzen Urola Erdiko garapen eta berrikuntza erakundeak eta le Team kanpo adituak aritu dira. Zazpi eragileek elkarlanean garatu duten edizio hau 2014ko udazkenean hasi eta itxiera ekitaldiarekin amaitu zen ekaina amaieran. Honela, ikasturte guztian zehar egindako lana, itxiera ekitaldian agurtu zuten eta

bertan, ikasle, irakasle eta eragileek lanaren emaitza aurkeztu eta esperimentuaren balorazioa egin zuten. Guztiak oso pozik agertu dira eta datorren ikasturtean edizio berri bati ekingo zaiola ere aurreratu zen.

“Aurtengo edizioa 2014ko udazkenean hasi eta ekaina amaierako ekitaldian amaitu da”

Iraurgi Berritzeneko arduradunek agertu dutenez, Elkarrekin Eraikitzen proiektuak, ikaslea, proiektua nahiz honek dakarren ikasketa prozesuan protagonista egiteaz gain 3 helburu nagusi bete nahi ditu: “Batetik, ikasleen

artean ekintzailetasunari lotutako balio eta gaitasunak sustatzea du helburu, besteak beste, iniziatiba edo komunikazio gaitasuna. Lehen helburu hau bete ahal izateko, proiektuak irakasleei metodologia berritzaileekin esperimentatzeko aukera eskaini die. Proiektuaren 3. eta azken helburua berriz, ikasleek eskualdeko egoera sozioekonomikoaren berri izatea da etorkizunean lan munduan sartu aurretik dagozkien erabakiak ahalik eta informazio gehienarekin hartu ditzaten”. Modu honetan, proiektua bi fasetan egituratu da; lehenbizi, eskualdeko ikastetxeetako irakasleek elkarlanean, ikasleek aplikatu dituzten metodologia berritzaileak esperimentatu dituzte ondoren ikastetxe bakoitzak bere neurriak egokitzen den proiektu bat egituratu duelarik. Bigarren fasean aldiz, ikasleak talde txikitan bilduta, irakasleek planifikatutako prozesuaren bitartez,

Iraurgi Berritzenek proposatutako 8 kasu errealak hausnartu eta lanketa bat aurkeztu dute.

“Ikasle taldeek, Iraurgi Berritzenek proposatutako 8 kasu erreal hausnartu dituzte eta ondoren, lanketa bat egin behar izan dute”

“Parte-hartzaileek, bereziki ikasle nahiz irakasleek, bigarren edizio hau ere positiboki ebaluatu dute eta izan dituen parte-hartze datuengatik ere arrakastatsutzat jo daiteke. Proiektuan zehar, 15 irakasle eta 250 ikasle inguruk hartu du parte. Hauxe gain, prozesuan zehar ikasleek egin dituzten elkarriketa eta azterketa lanetan borondate 40 eragiletik gora hartu dute parte”, gaineratu dute. Besteak beste, hainbat enpresa

ordezkari, Azkoitia nahiz Azpeitiko udal ordezkariak, Urkomeko ordezkariak, Merkataritza elkartetako ordezkariak, Iraurgi Berritzeneko ordezkariak, Osasun Zentroetako ordezkariak nahiz lehen sektoreko hainbat ustiatagitaro arduradunekin egoteko aukera izan dute ikasleek.

Proiektuaren informazio guztia www.elkarrekineraikitzen.wordpress.com wengunean aurki daiteke.

Ikasleak protagonistak

Elkarrekin eraikitzen proiektuan hainbat eragilek hartzen dute parte baina protagonista nagusia bat da; ikaslea. Izan ere, eskualdeko enpresa eta eragile desberdinek dituzten egoera errealak ikertuz, Urola Erdia bailararen egoera sozio-ekonomikoa ezagutzeko aukera izan dute. Modu honetan, ekintzailetasuna sustatu ahal izan da gaztetxoaren artean. Hona hemen, ikasleek beraiek esperientziak egiten duten balorazioa:



IRAURGI IKASTETXEA

Eskolako errutinatik irteteko aukera eman digu, ikastetxetik kanpoko eragileekin sozializatuz. Gainera, Informazio eta komunikazio teknologiak (IKT) landu ahal izan ditugu; ordenagailuak, hauetarako programa berriak... Gure taldeak adibidez, blog bat sortu dugu. Proiektu honetan parte hartzearen esperientzia oso positiboa izan dela esan dezakegu.



IKASBERRI AZPEITIKO IKASTOLA

Ikastolan paper artean edota azterketetan baino gehiago ikasi dugu. Gainera, normalean bakoitza bere buruarekin bakarrik arduratzen da baina proiektu honetan talde giroan egin dugu lana, bestea laguntzen saiatuz, izan ere interes berdina ditugu denok. Normalean egiten dugunaren oso ezberdina izan da eta gogo gehiagoz hartu dugu eta horregatik, hobeto aterata zaigu lanaren emaitza. Proiektu honetan egiten den lana ez da alferrikakoa, bere helburua ondo betetzen du.



Hona hemen Azpeitiko Udalak azken hilabeteetan egin eta hasi dituen obra desberdinen informazioa;



1.-

1.- ARATZ-ERREKAKO PLAZA

Auzotarrek horrela eskatuta Denon Artean prozesu parte-hartzailearen baitan, Azpeitiko Udalak Aratz-Errekako plaza oinezkotu eta aparkaleku berriak egokitu ditu. Era berean, eta lanak guztiz amaitzeko, haur parkea ezarri da plazaren erdian. Lanen aurrekontu osoa 120.000 eurokoa izan da, baina Udalak 48.000 euroko laguntza lortu du auzoak biziberritzeko Erein programari esker.

Aurrekontua: 120.000 euro



2.-

2.- LOIOLAKO TURISMO BULEGOA

Loiolako turismo bulegoa lekuz aldatuko da eta dagoeneko hasi dira eraikin berriaren lanak. Bulego berria eraikin prefabrikatua izango da eta Iruñeako Nuevo Sistema Modular S.L. enpresa arduratuko da eraikinaren horniduraz eta instalakuntzaz. Lanak San Ignazio festetarako amaituta egotea aurreikusten da eta behin zabaldutakoan, urte guztian zehar irekita egongo dela aurreratu dute Udal ordezkariak.

Aurrekontua: 51.600 euro



3.-

3.- AGIRRE AUZOA

Agirre auzoko 1 eta 5 zenbakien arteko espaloiak berritzen hasi dira, bizilagunek Denon Artean prozesu parte-hartzailearen baitan eskatu ondoren. Honela, 3 hilabetetan zehar espaloiak berritu eta bide batez, gas naturala izateko aukera izango dute.

Aurrekontua: 135.000 euro

Irudi irabazlea du Antzerki Topaketak



saria irabaziz. Eguzkiñek bigarren aldiz lortu du Azpeitiko Antzerki Topaketetako kartel lehiaketa irabaztea, 2010 urtean ere irabazi baitzuen.

euskara hutsean egiten diren Euskal Antzerki Topaketa bakarren XXXIII. ekitaldia dela eta, Azpeitiko Udalak hautatu du Topaketa horietarako kartel lehiaketaren irabazlea; Eguzkiñe Egaña zarauztarra. Lehiaketa horretan 34 lanek hartu dute parte, eta guztiak ikusgai egon dira Betharrameko aretoan, ekainaren 6tik 18ra bitartean. Epaimahaiaren iritzia eta erakusketara hurbildutakoek emandako puntuazioa kontuan harturik, Egaña zarauztarra izan da hautatua, 900 euroko diru-



Jose Mari Orbegoza omendu da

azpeitia Dantzan ekimena aprobetxatuz, Udalak Jose Mari orbegoza dantzaria omendu zuen uztailaren 12an. Izan ere, urte honetan zehar Europako txapelketan pasodobleko txapelduna, saltsa modalitateko azpitxapelduna eta cha cha cha, vals, tangoa eta pasodoblea nahasten diren modalitatean, berriz, 3. sailkatua izan da. Era berean, sari garrantzitsu hauez gain, Azpeitian saloiko dantzak erakutsi eta sustatzeko egiten duen lan ixila aitortu nahi izan dio. Zorionak Jose Mari!

Langabezi tasa, Gipuzkokoaren azpitik

azken hilabeteetako tendentziari jarraituz, Azpeitiko langabezia tasak beherakada nabarmena izan du ekainean. Jasotako datuen arabera, Azpeitian langabezi tasa %12,20koa da, maiatzean %12,70koa zenean. Langabetu kopuruari dagokionez, guztira 896 langabetu zenbatzen dira Azpeitian, aurreko hilean baino 38 langabetu gutxiago. Datuak oso onak dira izan ere, Gipuzkoako eta Urola Erdia bailarako batzbestekoetatik behera dago Azpeitiko tasa, Gipuzkoakoa %12,30koa da eta bailarakoa %12,29koa. Lanpostu berrien kalitateak kezka sortzen jarraitzen duen arren, Azpeitiko Udalak positiboki baloratzen ditu azken datuak.

Joxe Takolo beka, Patagoniara



eanaut Izagirre, Ibai Rico eta Evan Miles-ek aurkeztutako "Incognita Patagonia" proiektuak jaso 2015eko Joxe Takolo beka. Sariaren 3.000 euro jaso dituzte irabazleek eta agertu dutenez, bidaia abenduaren 10etik urtarrilaren 20ra bitartean egingo dute. "Bidaia 40 egun inguru iraundo ditu eta helburu nagusia Patagoniako Hoste irla ikertzea da, inguru haietan gutxien ezagutzen den irla baita. Glaziarak ikertu nahi ditugu eta modu horretan, gune hartako kartografiari ekarpena egin. GPSarekin joango gara, eta mapa bat-edo egitea nahiko genuke ikertutakoarekin".

2015/08/28, 29, 30

LOIOLA
AZPEITIA

EUROPAKO
SEGA TXAPELKETA
EUSKAL HERRIA



Europameisterschaft im Handmähnen | Backenland
European Championship in Hand Hewing | Backen Country
Campenato Europeo de Siega | País Vasco
Championnat Européen de Foushage | Pays Basque

LOIOLA 2015



ABUZTUAK 28

19:00 **AZPEITIKO UDALETXEA** Herrialde guztietako arduradunei harrera.
19:30 **MERKATU PLAZA** Musika animazioa eta oñorduak.
23:00 **MERKATU PLAZA** Dantzailea.

ABUZTUAK 29

16:00 **IKASBERRI GAZTETXOEN I. EUROPAKO TXAPELKETA**.
18:00 **KABAILKADA AZPEITIKO PLAZARA**.
Herrialde ezberdinen kultur erakustaldi handia.
19:00 **MERKATU PLAZA** Herrialde eta segalarien aurkezpena eta sailen zozketa.
Ekitaldiak eta jantoki irekia.
23:30 **MERKATU PLAZA**.
Kontzertua: LAKET.

ABUZTUAK 30

10:00 **LOIOLAKO BASILIKA** Meza.
11:30 **EUROPAKO SEGA TXAPELKETA** Gizonezkoak I. Txanda.
13:00 **Atsedenerako BASILIKA GUNEA**.
Aisiak: taberna eta jantoki irekia.
13:30 **EUROPAKO SEGA TXAPELKETA** Gizonezkoak II. Txanda.
15:00 **EUROPAKO SEGA TXAPELKETA** Emakumezkoak.
18:00 **BASILIKA GUNEA** Kanpoko herrialdeen kultur erakustaldia.
19:30 **MERKATU PLAZA** Ekitaldi nagusia eta sari banaketa.
Aisiak: eta jantoki irekia.
22:00 **MERKATU PLAZA** Dantzailea.